

# Egia tantaka

**Kontzientzi barri bat.**—Gaur guztiok gabiltz zanari, danari —errealidadea esan oi dautsoe batzuk— aurrez aurre begiratu nai-rik. Gauzak ez doaz ondo, ta mun- du zuzenago bat billatu ta egin nai geunke. Ta zuzentasunaren alde burruka dagigu; anaitasun geiago gura geunke gizartean: bakoitzari berea emon, gure inguruko anaiak, euren nortasunean, gero ta gizatia- go bizi daitezala.

Pentsaera onek, egia esan, erro-tik eldu dautso munduari, ta apurka apurka bete ta zabalduaz doa egitarau baten antzera. Au nai ebe-nak, urte batzuk dirala, taldetxoak baiño etziran, eta ixillean lan egien geienak. Gaur, barriz, gure erriko geienen kontzientziak oiu bizitan dagoz; zerbait nai dabe, oiartzun bizia dakarren abotsa dozu. Politi-ka arazoan bakarrik ezeze, eliz-kontzientzia bera be zabalduaz, ar-gituaz doakigu.

Eleizeak gaur lan dagi, an naiz emen. Ba-daki zer daukon inguru-an, gizonak zer nai daben, txiroak naiz beartsuak, baztertuak, barruan ditugun alderdiak zer nai da-

ben ba-daki; azken urteotan euskal Iurrean zabaldu yakun industri indartsua, kanpotik etorri yakun jente mordo amai bageak, enda burruka, uri aundiak, erriketa, etxerik ezak, jentetza izugarrien istiluta korapilloak, baserritarren buruko miñak, bizi edo illezko egezin larri onen altzoan.

**Ekaitz gogorra.**—Aspaldion itxaso asarratua dabilkigu inguruaren iruntsiko, Euskal erri osoa sustitutik dardarazo najeau. Ordu onetan, beraz, ezin geinteketzea egon besoak gurutzatuta. Eta gitxiago, guzti onen «gatza» ta argia» dan Eliza. Euskal Elizak, naiz-ta azken urteotan zartada gogorrak artuizan aldakuntzetarako gertatu barrik egoalako edo, gaur ba-daki noiz eta nun bizi dan, eta gaurko arazoetan zelan jokatu bear dauan,

Lenago baserri utsa zan euskal erria, gaur uri ikaragarri biurtu yaku. Elizak len baserritarrauk zituan gatz-gai; orain, ostera, uri aundietako jentea, eritxi, bizkera ta erle-jiño-era guztietaikoak. Solo auxe dau, beraz, lantoki; toki jakin, konkretu onetan lan egin bear dau,

ementxe mamindu bear dau Kris-toren mezua (mensajea), ementxe izan bear dau Eliza.

Lengo urteetan irakatsia ona ta-egokia izango zan nimbait, igarteko gizartearentzat; gaurko muntako beste era bat bear dau: lenuak beste era bat bear iza-goa ta oraingoa dotriña bera iza-nik bere, beste era baten emona izan bear. Ez gero gauza abstraktu, goiko bat bezela emona be, erri ta gizon oni emona baiño. Gi-zona ta erria Elizak azi ta ezi bear ditunak. Ume dira geienik gizonak eta erriak, eta maixuak eskolatu oi dabez umeak. Eliza bedi, bere irakatsi leun sarkor eta goitarrez, gizadiaren maixu argitsu.

Eta euskal errian, jakiña, euskal maixu. Euskal errian, oraintxe ta ementxe, euskal gizona aurkitu ta adierazo bear dau; bai, bere etxean, bere errian, bere inguru-giroan. Orrela al dagi gaur? Ainbat zozokeri esan oi da, ta orregaitik itzamau; baiña ardura orrez kezkatu ez dala esatea sats-eskutada bat arpe-gira botatzea litzateke. Iñoi zbere lo-aldiak izan ba'ditu be, gaur eta beti euskal Elizak, konturaturik, bere gizonen ardura izan dau, bere gizonen naigabe ta itxaroz, min eta pozez jabeturik, ez ditu egundo be bertan bera itxi, euren arima ta

gorputzeko arazoetan ama ta lagunkide izan baiño. Lena len ta oraiña orain, gizona izan be bere oraingo inguru barruan bizi yaku. Ortxe atzemon bearra daukagu, ta eskolatu oso-osorik, gorputz eta arima.

**Gaurko gizona.**—Zelan daukagu, baiña, gaurko gizona? Azke ta alai? Ala jausia ta its? Arimari begiratu ezkerro, ba ete dau itz egiteko, idazteko, pentsatzeko bear leukean aiña askatasun? Gorputz aldetik, nolako lege, oitura ta egituz lotua? Ba dau aukeramenik nai dauana egiteko, ala iñoren sartapean garraxi dagi? Alde ikaragarria bait dago onela edo arela bizi, naiz kulturarako, naiz gizarte-arrerakuntzarako, naiz erlejiño ta eliz egitekoetarako.

Gatza bedi onetan bere Eliza. Kondaira garairik latzenean gagoz; euskal erriak ez dau sekula onako kinka, larri-une ta tentu gaixtorik izan. Diruz iñoi zkorik ondoen gabiltzalarik be, politika ta erlejiñozelaian ez gara iñoi z be ain estu ta dardaratuak bizi izan. Eliza be, bada, erri naastu onen barruan dagoalarik, iraulka ta arriskuan sartua dagonik ezin uka. Izatasun onek, mamu antzera, zirzart dagio begi aurrean, eta naitaez billatu

*bear dau erabagi bat, askapen bat, soluziño bat. Eta ez nolanaikoa, nasai ta zentzun bako taldetxo bat- tek nai dauanez. Kristo'ren irakatsiz argitu ta eskolatu bear dogu euskaldun semea.*

Lendik be izan ditu Euskalerriak gizaldietan zear, bere estuasun eta negar-aldiak: kultura ta mixeri aldetik gorriak ikusia dogu. Eta gerria luze ikaragarriak. Eta Elizeak ez eban euskal erria, Edestia lekuko, egundo be albora itxi: beti lutzatu eutson eskua, eta maitekor lutzatu be. Euskal istoria zerbait dakiengak ez dira, ez orixe, Eliza amordeko izan danik esaten ausartuko, naiz-ta gaur ezjakin utsean ainbat kaikukeri jalgi-erazo. Eta gaur be, estualdi onetan ez dau erria bere kasa itxiko, mundu naspildu ontan aurrera egiten lagundu baiño.

Euskaldun gizon barria dogu aurrean. Zarrak ba-doaz beste mundura; garerdikoak euren mundua dabe, pozez ta negar-garraxiz ore-tua; gazteak, aurreko bitzuoi muzin egiñik, bide barriak nai dabez, ezeren loturarak bage. Bide onak ete? Gizonok dagigu kondaira, baina ezin daikeguz aurretikoen odo-la, egiñak, oiturak eta abar ukatu. Txakur billosak lez giñake. Eta zuk

diñozu: «Ez dot nai aurretikoen ezer!» Baiña, zuk gura ezta be, dozun guztia aurretikoa dozu. Beraz, ez esan lelokeririk; ez mintzatu iñozo lez.

**Eliza be zapaltzaille?**—Egia ete? Noiz edo noizkoren baten, gaur geiegitxotan, orrela berba egin do. gu. Modako pentsakera barrian on- datuak, oraingo boladan edozer maxiatu oi dogu, ta maxiatzeak be- ti dakarkigu zerbait onik. Eta, du- darik bage, gaurko edozer darda gaiñ erabilli bearrak be, berea eka- rriko dausku. Bai, Elizea be, bes- teak beste, gure errian zapaltzaille izan dala esan oi da. Ta ba-leiteke egi-izpiren bat emen izatea. Eliza be, emen eta nun-nai, luzaro sa- mar, bere kautatik urtena, bere kontzientzi geiegi barik, iñoren burdiari lotua, lan errezean joka- tua dogu. Nok eztau, baiña, peka- turik?

Orain, orraitiño, konturatua do-  
gu ta «damu dot» esanik gizona-  
rekin eta erriarekin osorik bizi  
naiean dakusgu. Iñoz egin badau  
be, ez dau geiago bizitzarik lorrin-  
duko, ez dautso kapitalismuari  
—ez eta sozialismuari— eskua la-  
rregi luzatuko, ez dautso erriari  
bere eraspen eta elizkizunetan etsi-  
pena bakarrik erakutsiko Kristo

erakutsiko dautso, baiña Kristo as-  
katzaille, Kristo gure lagun eta sa-  
ri. Eta bere jardunetan gizon iza-  
ten irakatsiko dautso gure erriari,  
Edestiaren aurrean bere egiñen  
erantzule izaten. Elizeak, mundu-  
ko erresumariik geienetan lez, in-  
dar aundia dau Euskalerrian, eta  
nekez kenduko dautsoe ain berea  
dauan ori ortan saiatzen diran are-  
rioak.

Gertakari edo fenomenu bi dau-kaguz: lenengo, nagusitzaren men-de gagozala ta bigarren, iñoren agoa. Nagusitza ta iñoren agoa; in-agauan ditudan artu-emonak, diruak, kontsumoko gizarteak ez al-naukie loturik? Eta nun dot Kristok esan euskun mezu, mantadu askatzaillea? Ez dogu nai, ez dogu bear, ezertariko menpekotasunik. Nor bat gara, pertsona bat, eta onek azke izan bear dau; askatu bearra dogu pekatutik, dirutik, iñoren jopu izatetik: gizona azke da.

Bide barriak, pentsakera barriak gizonari lagundu dagiogun, gizona eskutik zuzendu daigun, gizonari gizonago izaten erakutsi dagiogun. Len era batera ta gaur bestera; sasoiaik sasoikoa eskatzen. Len etzana gaur da; pentsakerak aldatuz... Biziz ikusi ta ikasi dogunez, aurrera...

Gure jokabidea: gaurkoa, ezin saiets itxia: aurrenik kontzientzia artu, ta gero Ebanjelioa erein. Gauzak be kontzientziatu, norbere ta gizonaren erantzunez aragiturik: gizon barri bat, gizarte barri bat sortu ta oretu. Al ete dogu? Lendik be sarri barriztatu izan da Europa. Eta beste lurralteek. Orain zergaitik ez? Pentsamentu ta ideien indarrak asko egin leike, ta egin bear dau.

**Sustraiak sakonduz.** — Pentsamolde onek, bare-bare, sustraiak egin eta erro zaintsuak bota dauz, ur-ertzeako areitz gazte baten antzera. Lenengo gogoz ikusia izanda, ta gero aintzat artu ta estu besarkatua. Epez egiñik doa. Izadiko aldaketak aldia eskatzen dabe, bardin pentsakerak be gizarte-soloan sustraiak sakondu dagiezan; onek alan be izango ditu zoztor eta era-gozpenak, edozein pentsakerari errez amor emotekoak ez gara-ta.

Munduak ez eban beiñola Kristoren dotriña errez artu, baiña kristiñautasunak baso-arte estuan zear be bide egin eban. Orobait gaurko ideia barriak, eta Ebanjelioa eskuan dogula —meatz (miñia) zulo ikaragarria baita— bizi garean mundu au barriztatu geinke. Ortarako, Marx eta Marcuse'k

indarra ba'dabe euren irakatsiakin, Kristok askoz geiago; Kristoren do-triña, Barri Ona askozaz be bigun, gizatiar eta egokiago dogu mun-dua jantzi barriaz apaindu ta ar-nas iraunkorrez piztu-azoteko.

Zuk, alan be, diñozu: «Munduak ez ete daroaz ia bi mila urte kris-tautasunaren mende?». Erdizka baiño ez dozu egia. Ariz-ari ta gel-diro jabetu zan kristautasuna mun-duaz; urteak joan urteak eterri ainbat burruka izan zituan. Baita munduko erdoia itsatsi be, au da, munduaz jabetzen akatsak be sar-tu yakoza; gobernu ta agintarien mende jaustea olako bat, Konstan-tino'ren egunetan batez be. Mundukutsu ta akats orreitatik garbituaz doa gaur Elizea: Iurrealderik geie-netan gaur iñoren mende ezta bizi, bere eskuko baiño. Eta toki guz-tietan iñoren buztarripetik urtena ikustean, orduan askoz be geiago aintzatua ta ontzat artua izango yaku, dudarik bage. Gaurko egiturak eta estrukturak, baiña, ez dira errez azpiratzekoak. Orain be, oin-diño, Erroma'ko lege-eskubideak irakasten dira tcki askotan, lege-karrera ikasterakoan batez be.

Gauzak ez dira gabetik goizera osotzen. Mendi-gaillurrera igoteko ez da ona abiada aundiegia artzea;

arnas-itoka izerditu egin oi gara errez, baiña zoaz astirotxoago ta Lengo estruktura asko eratsi bea. rra dago, ta gaurkoak jarri bai po-zo guzietan. Eta orain urte batzuk ardirala errez etzana, gaur erreztu egin da. Eliz-arazoetan, adibidez, Batikano'ko Bigarren Eliz-Batza-rak, barauak eta aldatu, meza-ze. Sakramentuak emotean darabilgu-rriz apaintzean, gure artean oso baserritarrak bakarrik, kaleko ka-ren barruetan eta miñetan ainbat norabako entzun izan dogun geure erriz-errizko apostolu-zeregiñetan. «Nora garoaz Elizeak?» diñoe batzuk; «Sakramentuak be aldatu?» dira aldatu, Jesukristok berak ipi-nitakoak dira-ta; baiña Sakramen-tu orreik jenteari ernoteko erea Kristok. Elizaren eskuetan laga-eban, eta berak esan bear dau len zelan eta gaur zelar. Aisoi bakotxa-ri dagokionez: Eliza ezta gauza es-tatiku bat, beti egonean dagona. Gizakiakin dabil Eliza, edo obeto, gizakiak dagie, gizonok —jaio, bizi, il— gabiltzanez. Gizadiaren ga-

rnas-itoka izerditu egin oi gara errez, baiña zoaz astirotxoago ta Lengo estruktura asko eratsi bea. rra dago, ta gaurkoak jarri bai po-zo guzietan. Eta orain urte batzuk ardirala errez etzana, gaur erreztu egin da. Eliz-arazoetan, adibidez, Batikano'ko Bigarren Eliz-Batza-rak, barauak eta aldatu, meza-ze. Sakramentuak emotean darabilgu-rriz apaintzean, gure artean oso baserritarrak bakarrik, kaleko ka-ren barruetan eta miñetan ainbat norabako entzun izan dogun geure erriz-errizko apostolu-zeregiñetan. «Nora garoaz Elizeak?» diñoe batzuk; «Sakramentuak be aldatu?» dira aldatu, Jesukristok berak ipi-nitakoak dira-ta; baiña Sakramen-tu orreik jenteari ernoteko erea Kristok. Elizaren eskuetan laga-eban, eta berak esan bear dau len zelan eta gaur zelar. Aisoi bakotxa-ri dagokionez: Eliza ezta gauza es-tatiku bat, beti egonean dagona. Gizakiakin dabil Eliza, edo obeto, gizakiak dagie, gizonok —jaio, bizi, il— gabiltzanez. Gizadiaren ga-

geure etxe-an geratu oi gara patxa-da ederrean. Begira zenbat odol ixuri izan daben geure gizaldiak zeар Kristoren jarrailleak, gizar-tean ikusi izan dituen zapalketa biurriek salatu ta Kristau bizitza sartu-azo nai izan dabelako. Azken urteotan Errusia'n, Mexiko'n, Txina'n, Txekoslobakia'n, eta gaur-gaur Burundi'n.

**Ekintza.**—Pentsakera alan eta guzti be ekintza biurtu ezik, zerta-ko genduke? Pentsakeratik, beraz, ekintzara jo bear dogu. Eta ekin-tzak ekintza dakar. Biziaz ikasi do-gunari ertzak artu ta gogoznartu ezkero, ekintza barriak biztu-azo oi dira edozein zelaitan; baiña pol-itikan eta gizarte-barrutian baitik bat. Eguneroko biziak, mai ederra da-ta, asko irakasten dausku, ta egunean eguneango experientzi onekin ikasia dogu, barru-gogora sartzeaz bat, gauzaen izatea adie-razo ta giza-jokabideen guna ta zer-bakoitzaren balioa aitzen emoten dauskuna. Onek ondoren edegi-azo-ko dauskuz bide barriak.

Ezta arrigarri. Elizeak salatzen bait ditu Estadu orrein zuzengabe-keri ta zapaltzeak, geien bat bein-tzat beartsu ta olakoen alde arpegi emanik. «Geien bat» diñot, eta orrela da: beti ezin izan oi dalako. Ikus zelako estuasun eta kinkan jarri oi dan geiegi salatzen asi ez-ker... Aurrekoari askotan marti-ri-garra bear dauala esan arren,

Guzti au, Kristotar gareanok, maitasunez igurtzi ta bete bear do-guna da. Auxe dogu Kristo aska-tzaillearen mezu berezia, maitasun askatzaillea. Ezkutu aundi, baiña egiazkoa. Ezta, ez, ames utsa, ezta